# Kode Penalean «apologi deliktua» sartzea proposatu du PSOEk Kongresuan

■ Atentatu batek 20 eta 30 urte bitarteko zigorra balu, beronen apologiak 10 eta 20 bitartekoa izango luke. ■ EAJk hausnarketa eskatu du.

Kongresuko PSOEko taldeak Kode Penalaren erreformari zuzenketa bat aurkeztu dio «apologi deliktua» arautu dezan. Alvaro Cuesta diputatuak esandakoaren arabera, «terrorismoari» dagokio berezíki zuzenketa hau, eta taldearen asmoa epaileei zigortzeko orduan erraztasunak ematea da.



Emilio Olabarria diputatu jelkidea. ARTXIBOKOA

MADRIL

Espainiar Kongresuko PSOEko talde parlamentarioak «apologi deliktua» Kode Penal berrian sar dezan zuzenketa bat aurkeztuko du. Alvaro Cuesta diputatu sozialistak atzo esan zuenez, epaileei deliktu hau zigortzeko erraztasunak eman nahi dizkiete.

Kode Penalaren aldaketarako legeari PSOEk aurkezten dizkion 90 zuzenketen artean dago «apologiari» dagokion hau eta, Cuestak esandakoaren arabera, proposamen honekin deliktuak «probokatzeko» egiten diren adierazpenei aurre egitea espero du talde sozialistak.

**Zigorra**

«Apologiare zigorra honek eragiten duen deliktuari jartzen zaiona baino gradu bat edo bi gutxiago edukitzea proposatzen du PSOEk. Horrela, Alvaro Cuestak emandako argibideei jarraituz, heriotzaren bat eragiten duen atentatu batek 20 eta 30 urte bitarteko zigorra izango balu, beronen apologiak 10 eta 20 urte bitartekoa izango luke.

Zuzenketa honetaz atzo zabaldu zen informazioan KAS koordinakundeari leporatu zaion idazkia —kazetarien kontra atentatuak aurrikusten duena— azaltzen da, PSOEren proposamen honen bitartez horrelako kasuak zigortzeko aukera izango litzatekeela azpimarratuz.

Kode Penalaren eztabaidari lotuta, bestalde, Emilio Olabarria diputatu jeltzaleak «terrorismoagatik» giltzaperatuei zigorrak oso-osorik betearazteko proposamenaren egokitasunaz hausnarketa egin dezaten eskatu zien Gobernuari eta beste talde parlamentarioei, izan ere, neurri hau Konstituzioaren kontrakoa izan daiteke, Olabarriak berak atzo azpimarratu zuenez.

### LABURRAK

## Dos presos vascos en libertad tras cumplir íntegramente sus penas

Los presos políticos Kepa Suárez Ugarte, de Bilbo, y Joxean Mujika Huizi, de Pasai Antxo, quedaron ayer en libertad después de cumplir íntegramente sus respectivas penas, ya que ambos deberían estar en libertad condicional desde 1992 y 1993, respectivamente.

Kepa Suárez era excarcelado el lunes por la mañana en la prisión de Algeciras, en la que se encontraba desde agosto de 1991. Fue detenido en octubre de 1987, junto a su compañera, que ingresó también en prisión. Estaba previsto que este preso llegase a última hora de la tarde de ayer a Bilbo, si bien el acto de recibimiento tendrá lugar mañana a las 8.

La puesta en libertad de Joxean Mujika Huizi se produjo a primera hora de la tarde de ayer en la prisión de Zaragoza, en la que se encontraba desde febrero de 1993. Fue detenido en Irun el 16 de setiembre de 1989.

Mujika recibió ayer un primer homenaje a su llegada a Pasaia, aunque el acto oficial le será tributado hoy.

## Llamadas insultantes a la hermana de Gregorio Ordóñez

Consuelo Ordóñez, hermana del dirigente del PP muerto por ETA, recibió al día siguiente del atentado una llamada insultante que quedó registrada en su contestador.

Dicha llamada, efectuada por un hombre que distorsionaba su voz, decía: «Sentimos la muerte de Ordóñez de ayer, pero se lo tenía merecido. Mientras otros condenan, incluida gente de Herri Batasuna, la muerte de Ordóñez, nosotros apoyamos a los asesinos. Si la familia Ordóñez, a pesar de que es católica, no puede perdonar a los asesinos, nosotros no somos católicos y jamás vamos a perdonar a Ordóñez. Joderos».

Pese a que el anónimo llamaba «asesinos» a los autores del atentado, algo que difícilmente dirían quienes apoyan a ETA de sus militantes, el PP responsabilizó de la llamada a HB y Jarrai.

## Lau presok borroka armatuaren kontrako jarrera plazaratu dute

Jose Angel Alvarez Garcia, Jose Luis Artola, Jose Miguel Lopez de Muniain eta Carlos Gorrindo Etxeandia presoek idazki bat helarazi dute egunkari honetara eta, bertan, borroka armatuaren kontrako jarrera planteatzen dute, duela hilabete batzuk "El Mundo"-ra filtratu zen beste idazki batean bezalaxe. Aurreko testu hura Jose Miguel Latasa preso kanporatuak ere sinatzen zuen.

Langraitzen giltzapeturik dauden lau preso hauek diotenez, «Estatua eta Euskal Herriaren arteko gatazkako alderik bortitzenak, indarkeriak alegia, fase berri bat ezagutu du, herritar gehienen arbuioa eta ezker abertzaleko sektore handi baten sinesgogortasuna eta noraezeko bidean barrena goazen ustea eragin duena; indarkeriaren erabilpenak irtenbiderik ez duen kale itsuan sartuta gauzkan sentsazioa ari da nagusitzen eta guk ere beste hainbeste uste dugu».

# ESKELAK


**ASIER MARTINEZ ETXEBERRIA**

**"Heavy"**

*Zergatik zapuzten dira udaberiko lorak?*
*Zergatik irensten ditu egunsentiko printzak hodei ilunak?*
*Zergatik...?*

**EGUZKIko LAGUNAK**

✝ **BALBINA ETXEBARRIA APERRIBAI**

**Atzo, 1995eko otsailaren 21ean hil zen Busturian, 85 urte zituenean, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.**

Nebak, Gregorio eta Julian; koinatu-koinatak, Mari Londeta eta Juli Loroño (Rufino Etxebarriaren alarguna) eta Miren Uriarte (Roke Etxebarriaren alarguna); lobak, lehengusu-lehengusinek eta gainerako ahaideek, otoitz bat eskatzen dizuete haren animaren alde eta GAUR ASTEAZKENA, otsailak 22, **arratsaldeko 6etan**, Larrabetzuko Andra Mari eliz parrokian, gorpua bertan dela, egingo den hiletara etor zaiteztela. Guztioi eskerrik asko aldez aurretik.

ESKELAK
JASOTZEN DIRA
GAUEKO
10,30ak BAINO LEHEN
(943) 55 47 12
TELEFONORA DEITUZ